

ZENBATEK KONTSUMITZEN DUTE EUSKAL KULTURA?

“(…) etorkizunera begira, euskal kultura berriro interpretatzeko eta haren espazioa eta garatzeko aukerak berriro definitzeko saioak egin behar dira, ahalik eta jende gehienari partaide sentitzeko aukera emango dieten parametro berriak erabiliz”.

Baxok, Etxegoin, Lekunberri, Martinez de Luna, Mendizabal, Ahedo, Itzaina eta Jimeno: *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*, 150. orrialdea.

Maialen Lujanbiok 2009an zioen euskal kulturaren ohiko kontsumitzaileak 9.000 pertsona besterik ez direla (Berria, 2009-01-20).

Beste batzuk baikorrakoak dira, eta euskal kulturak 100.000 kontsumitzaile dituela diote. Angel Alkain aktoreak zioen legez, euskaraz egiten den antzerki, telesail edo filma egiten dela, gehienez 100.000 lagun hurbiltzen dira (<http://euskarazko-he-dabideak-eta-publizitatea/>).

Azkenik, Sorguneak ikertegikoek (2011) diote 80.000 eta 200.000 artean daudela euskal kultur produktuen bezero aktiboak, eta beste 300.000 lagun kontsumitzaile potentzialak direla.

Ikusten den bezala, ez dago adostasunik euskal kulturaren kontsumitzaileei dagokionez: 9.000, 80.000, 100.000 edo 200.000 dira?

1. Euskal kulturaren kontsumitzaileak

Euskal kulturaren kontsumitzaileen kopurura hurbiltzeko 7 kultur adierazpide aztertuko ditut: Internet, ETB1, Euskadi Irratia, prentsa idatzia, bertsolaritza, liburugintza eta zinea.

1.1. Interneteko hizkuntza

Euskal Autonomia Elkartean 15 urte edo gehiagoko Interneten erabiltzaileak 1.071.300 ziren 2011ko lehen hiruhilekoan, hau da, adin tarte horretako % 56,8. Internet erabiltzen zuten horien % 21,2ak euskaraz nabigatu zuen noizbait 2011ko lehen hiruhilekoan. Hain zuzen ere, 226.800 pertsonak nabigatu zuten euskaraz urte horretako momenturen batean. Hau da, euskaraz dakitenen % 34.

Dena dela, gauza bat da noizbait euskaraz nabigatzea, eta beste bat da euskara izatea interneten gehien erabiltzen den hizkuntza. Daturik ez dudan arren, nire ustez, askoz gutxiago dira interneteko ohiko hizkuntzatzat euskara hartzen dutenak.

1. taula: Internet erabiltzaileek nabigatzeko erabiltzen duten hizkuntza (2011) (kopuru absolutuak eta ehunekoak)		
	Kopurua	%
Euskaraz nabigatzen dute	226.800	21,2
Gaztelaniaz nabigatzen dute	1.061.400	99,1
Ingelesez nabigatzen dute	206.900	19,3
Frantsesez nabigatzen dute	22497	2,1
Beste hizkuntzaren baten nabigatzen dute	19283	1,8
15 urte edo gehiagoko biztanleak	1885.400	
15 urte edo gehiagoko internet erabiltzaileak guztira	1071.300	100

Iturria: Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (www.eustat.es)

1.2. ETB1-ren ikus-entzuleak

Telebista gure bizitza kulturalaren parte garrantzitsua da. 2012ko martxoan, EAEko herritar bakoitzak egunean lau ordu eta 3 minutu igaro zituen telebistaren aurrean (Berria, 2012-04-03).

Ez da erraza ETB1 zenbat pertsonек ikusten duten zehaztea. Izan ere, ikusle kuotak aldatzen ari dira etengabe. 2012ko martxoan %2,3ko ikusle kuota izan zuen EAEn, eta apirilean, %3,1ekoa. Dena dela, futbola dagoenean kuotak nabarmen egiten dute gora. Adibidez, 2012ko martxoan ikusi ahal izan zen Milan - Bartzelona partidak %30eko ikusle kuota izan zuen (Berria, 2012-04-03). Modu berean, Real Madril - Bayern finalerdiko penaltiak 700.000 pertsonек ikusi zituzten. ETB-1-ek bere historian ikusle gehien izan duen emanaldia izan da (berria 2012-05-04).

EITB taldeak 2012ko maiatzaren 18an eman zituen datuen arabera, EITBko euskarazko kateekin, hau da, ETB-1 eta ETB-3rekin, 168.000 lagunek egiten dute bat (<http://www.eitb.com>). Audientzia metatua, hau da, momenturen batean telebista ikusi dutenen kopurua handia da, baina programa eta telesail arrakastatsuenen jarraitzaileen kopuruei begiratzen badiegu, audientziak txikiagoak direla ohartze gara.

Goenkale telesailak %5,3ko ikusle kuota lortu zuen 2010. urtean. Euskaldunen artean %13,8ko kuota. Telesail honen audientzia metatua urte horretan 84.000 lagunekoa izan zen (Urkizu, 2010). Joan den urtean, 2011n, jende gutxiago hurbildu zen Goenkalera; hain zuzen ere, %4,4ko kuota lortu zuen, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan; Euskaldunen artean %12,2ko kuota. Audientzia metatua 68.000 ikuslekoa izan zen (Urtzi Urkizu, Berria, 2011-07-05).

ETB-1 telebista katean arrakasta izan duten beste telesail batzuk ere antzerako audientziak dituzte:

2006. urtean, EAE-ko 79.000 pertsonек ikusi zuten Martin telesaila; hau da, telebista aurrean zeudenen %12,1ak.

Wazemank saioak batez beste %2,5ko raiting-a izan zuen astero 2006an; hau da, 50.000 ikus-entzule gutxi gorabehera. Dena dela, egun batzuetan 78.000 lagunengana hurbiltzea lortu zuen, hau da, telebista aurrean zeudenen %11,9arengana.

Kutsidazu bidea Ixabel filmaren telebistarako bost atal arrakastatsuek %4ko rating-a izan zuten; hau da, 80.000 ikus-entzule gutxi gorabehera.

Honela bada, datuei begiraturaz, ondorioztatu genezakeena da ETB-1eko programa arrakastatsuenak 50.000 lagunetik 84.000 euskaldunengana heltzen direla. Alegia, euskaraz dakitenen % 7,5etik % 12-ra hurbiltzen dira ETB-1ek programa arrakastatsuenetara.

1.3. Euskadi Irratia

EITBko agintariiek 2012ko maiatzaren 18an ziotenaren arabera, Euskadi Irratiak 100.000 jarraitzailetik gora dauzka EAEn eta Nafarroan (<http://www.eitb.com>). Beraz, euskaraz dakitenen % 15 hurbiltzen da irrati honetara.

1. 4. Prentsa idatzia

Berriaren paperezko egunkariaren irakurleak 60.000 inguru izango lirateke Euskal Herria osoan. Internetetik 20.000 lagun hurbiltzen dira egunkari honetara (Larrarte, 2012-6-3). Beraz, 80.000 pertsonек irakurtzen dute egunero *Berria*, hau da, euskaraz dakitenen % 12ak.

2.Taula: eguneroko prentsa irakurleen kopurua, Euskal AEn. 2010	
El Correo Español - El Pueblo Vasco	460.000
El Diario Vasco	271.000
Marca - Ed. País Vasco	92.000
Deia	85.000
Gara	79.000
El mundo deportivo	55.000
Berria	53.000
El País - Ed País Vasco	45.000
El Mundo del País Vasco	31.000
Noticias de Gipuzkoa	30.000
Diario de Noticias de Álava	27.000
AS	16.000
Expansión	12.000
Publikoa	3.000

Iturria: CIES. Euskal AEko hedabideetako audientziaren ikerketa (www.Eustat.es)

Bestalde, kontuan hartzekoa da 2008an Euskal Herriko zazpi hitzek 19.439 harpidedun zituztela (2005. urtean, 36.604 harpidedun), hau da, euskaraz dakitenen % 3k.

CIES ikerketa zentroak 2007an egindako azterketaren arabera 450.000 pertsonak kontsumitzen dituzte noizbait euskarazko hedabideak; alegia, euskaldunen %57ak. Zehatzago esateko, euskal hedabideen kontsumitzaile kopurua ondorengoa litzateke: irratiak eta telebistak guztira 342.000 ikus-entzule dituzte, eta argitalpenek eta eguneroko prentsak, 407.000. (Garcia, 2011:5-9). Dena dela, askoz gutxiago dira euskaraz hedabideen ohizko jarraitzaileak. ETB-1, Euskadi Irratia eta Berriaren jarraitzaileen kopuruak ezagututa, nire ustez, euskarazko komunikabideen jarraitzaileak gehienez 100.000 bat direla esan daiteke; hau da, euskaraz dakitenen % 15.

1.5. Bertsolaritzaren zenbakiak

90. hamarkadaren hasieran, bertsolaritzak izugarritzko hedakuntza eta arrakasta ezagutu zuen. 1992. urtean, adibidez, 715 bertso-saio burutu ziren Euskal Herrian, 250.000-300000 ikus-entzule inguru erakarri zituztelarik (Siadeco, 1995:23).

Azken urteotan, 90. hamarkadako bertso-saio eta ikus-entzule kopuruak apur murriztu dira. Hala ere, bertso jaialdiek jende asko erakartzen jarraitzen dute. Aierdi, Aldaz, Alkorta, Retortillo eta Zubirik dioten bezala, euskaldunen %40 inguru bertsozalea da (2007:11). Hau da, 260.000 pertsona bertsozaleak direla diote.

Dena dela, bertsozale sutsuak gutxiago dira. Hauen arabera, bertsozale sutsuak bertsozaleen herena dira gutxi gora behera eta, beraz, euskaldun guztien % 10 - %15. Hau da, gutxi gorabehera 88.000 pertsona izango lirateke bertsozale sutsuak (66.000-100.000).

Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Behatokiak egin zuen *Kultura Ohiturak, Praktikak, Kontsumoa* inkestak (2007-2008) datu desberdinak ematen ditu. Euskal Herriko biztanleria elebidunaren %17,3a, bertsolariak entzutera joan da azken urtean. Alegia, 115.000 pertsona bertsozaleak dira.

Dena dela, ikerketa honen arabera, gutxiago dira bertsozale sutsuak. Hain zuzen ere, Euskal Herriko biztanleria elebidunaren %8,1ak du bertsolariak entzuteko ohitura; hau da, 54.000 pertsona (bertso emanaldietara joan dira azken hiruhilekoan). Inkesta horren arabera, bertsolariak entzutera joaten direnen artean, %24,4 hiru edo lau alditan edo gehiagotan joan da azken hiruhilabetekoan bertsolariak entzutera.

Beraz, bertsozale sutsuak edo nahi baduzue bertsolariak entzuteko ohitura dutenak 54.000tik 88.000rako tartean egongo lirateke. Biztanleria euskaldunaren %8 eta %15 artean.

1.6. Liburuen salmenta

Liburuen berrien ekoizpenari dagokionez, 90.hamarkadan, 1100-1.200 nobedade argitaratzen ziren urtero (Torrealdai, 1997:90), eta 2000. hamarkadan, gutxi gora-behera, 1.900 bat (Torrealdai, 2011:23). 2010. urtean, 2023 nobedade argitaratu ziren (Torrealdai, 2012:18).

3. taula: 2000. urtetik 2010era argitaratutako liburu analogikoak eta digitalak	
2000	1519
2001	1488
2002	1667
2003	1949
2004	1859
2005	2030
2006	1822
2007	2147
2008	2573
2009	2342
2010	2023

Iturria: Torrealdai, 2012:19

Berrargitarapenei begiratzen badiegu, 2010. urtean, 2009an baino liburu gutxiago berrargitaratu ziren, baina azken 10 urte-tako joera orokorra goranzkoa izan da, eta honek esan nahi du, nire ustez, euskarazko liburuen berrargitaratzeen panorama finkatu egin dela. 2009. urtean, ekoizpen osoaren %29 berrargitaratu zen eta 2010. urtean %24,5 (Torrealdai, 2011 eta 2012:36). Berrargitaratutako liburuen artean aipatzekoa da 45. edizioan dagoen Kutsidazu bidea, Isabel eleberria. Liburu ho-

nen 64.000 ale saldu dira dagoeneko (<http://www.berria.info/kutsidazu/ibillbidea.php>). Berrargitarapen ugari ezagutu dituzten beste liburu batzuk dira: Ostegunak 37 berrargitarapen, 110. Streeteko geltokia-k 36 eta Babilonia-k 27.

Non aukeratu eta zer irakurri badago euskaraz. Baina zenbat irakurtzen da?

2003. urtean egin zen *Hábitos de lectura y compra de libros en Euskadi* txostenaren arabera, EAE-ko biztanleen %20,4ak erdaraz irakurtzen zuen gehien bat, baina baita euskaraz ere; %0,6ak nagusiki euskaraz irakurtzen zuen. 2005ean egin zen ikerketa bera, eta orduan, emaitzetariko bat izan zen EAEko irakurleen %27,3ak erdaraz irakurtzen zuela baina baita euskaraz ere, eta biztanleriaren %3,1ek euskaraz irakurtzen zuela, batez ere (www.euskadi.net).

2009. urtean egin zen *Hábitos de lectura y compra de libros en la Comunidad Autónoma Vasca Año 2009* txostenaren arabera, EAE-ko biztanleen %94,4aren ohiko irakurketa hizkuntza gaztelera zen eta euskara %4,7arena. Alegia, badirudi apurka-apurka gora doala euskaraz irakurtzen dutenen ehunekoa. (<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net>)

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Behatokiak argitaratu zuen *Kultura Obiturak, Praktikak, Kontsumoa inkestata* (2007-2008) lanaren arabera, azken hiruhilekoan liburu bat irakurri zuten elebidunen herenak euskarazko liburuak irakurri zituen.

Egia esan, gauza bat da jendeak inkestetan irakurtzeko duen zaletasunari buruz adierazten duena, eta beste bat salmenta errealak.

Durangoko Azokari begiratzen badiogu, asko dira euskal liburueroak. Adibide bat jartzeagatik,

Gerediaga elkarteko lehendakari Jon Irazabalen esanetan, 2003an egin zen Durangoko 38. Disko eta Liburu Azoka orain arte-

ko arrakastatsuen izan zen, bai jendetzaren aldetik baita salmentei dagokienez ere. Izan ere, 130.000 lagun inguru pasatu ziren denera azokatik. Salmentei dagokienez, Joseba Sarrionandiaren Kolosala izango da eta Bernardo Atxagaren Soinujolearen semea izan ziren liburu salduenak (www.argia.com, 2003). Azokako arduradunen esanetan, liburu bakoitzaren 5.000 ale saldu ziren bost egunetan (<http://www.durangokoazoka.com/>)¹. Aipatzekoa da Atxagaren Soinujolearen semea azken urteotako euskarazko libururik salduenetarikoa izan dela. Euskarazko bertsioaren 15.000 ale inguru saldu omen ditu (www.Berria.info).

Bernardo Atxagak eta Joseba Sarrionaindiak ez ezik Ramon Saizarbitoriak ere argitaratzen duen liburu bakoitzeko 5.000 ale saltzen omen ditu (Etxeberria, 2002:269).

Azkenik, kontuan hartu behar da Jorge Jimenezek, euskal editoreen lehendakariak, 2007. urtean literatura solasaldi batean esan zuena: Euskal Herrian, 4.000 inguru helduk erosten dituztela euskarazko liburuak (Olaizola, 2007). Alegia, 4000 pertsona direla “sostengua ematen diotenak 30 argitaletxe inguru dituen euskal sistema literarioari”.

Beraz, euskal idazle irakurrienen salmentak eta Jorge Jimenezen adierazpenak kontuan hartuta, hipotesi gisa esan genezake 4.000 - 5.000 pertsonak osatzen dutela euskarazko liburuaren irakurleen komunitatea; hau da, euskaldungoaren % 0,6 eta % 0,7 artean.

1.7. Euskal zinea

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak zinema-aretoetako hizkuntzaren erabilerari buruzko azterketa egin zuen

¹ Dena dela, Jon Alonsok zalantzan jarri zituen zenbaki hauek *Argia* aldizkarian “Azokaz” izenburupean idatzi zuen artikuluan (Argia, 1925. alea 2003-12-21). Bere ustez, ezin da horrenbeste liburu saldu, kontuan hartuta azokak bost egun irauten duela eta saltzaileek horrenbeste saltzeko hainbat muga dituztela.

2007an, eta Euskal Herri osoko 29 areto azertu ondoren, euskararen lekua oso txikia zela ondorioztatu zuen. Euskaraz eskaintzen ziren pelikula gehienak umeentzako ziren, eta 10 film arrakastatsuenen artean, euskara ez zen inondik inora agertzen (www.kontseilua.org).

Hala ere, euskarazko filmak egin, egitera dira. 2011. urtean, adibidez, oso urte ona izan zen aurrekoekin alderatuz, euskarazko bost film estreinatu zirelako: Alberto Gorritiberearen *Arriya*; Asier Altunaren *Bertsolari*; Telmo Esnaolen *Urte berri on, amona!*; Imanol Rayoren *Bi anai*; eta Juanjo Elordi eta Asisko Urmenetaren *Gartxot*.

Badakit Asier Altunaren *Bertsolari* dokumentala ikusteko 15.000 pertsonak sarrera ordaindu dutela, eta beste asko izan direla kultur etxe, auzo elkarte eta herrietako kultur egitarauen bidez ikusi dutenak (Asier Altunak egindako adierazpenak Euskadi Irratian, 2012-6-25). Ez dakit beste pelikulek zer-nolakoa oihartzuna izan duten. Dena dela, badakit euskarazko film arrakastatsuenak ikustera hainbat pertsona hurbildu dela azken urteotan. 2005ean kaleratu zen *Aupa Etxebeste!* filma 69.571 pertsonak ikusi zuten. Diotenez, sekula euskarazko pelikula batek izan duen ikusle kopururik handiena lortu zuen pelikula honek. Bestalde, 2006ko Donostiako Zinemaldiaren barruan estreinatu zen *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filmak 29.000 lagun erakarri zituen estreinatu eta aste gutxira. Orotara, askoz gehiago izan ziren filma ikusi zutenak. Beraz, badirudi euskaldunen %10 euskarazko filmak ikusteko prest agertzen dela.

2. Ondorioak

Zenbat euskaldun hurbiltzen da euskal kulturara? ETB-1eko programa arrakastatsuenak 84.000 euskaldunengana heltzen dira, Euskadi Irratiak 100.000 jarraitzaile inguru omen ditu eta 80.000 pertsonak irakurtzen dute egunero *Berria* egunkaria. Beraz, euskaraz dakitenen % 12tik %15era dira euskarazko ko-

munikabideen eguneroko jarraitzaileak. Euskal zinearen jarraitzaileak, gehienez jota, euskaraz dakitenen % 10 dira, eta bertsozaleak 54.000tik 88.000rako tartean daude; hau da, euskaraz dakitenen %10-%15. Euskal literatura erosten dutenak askoz gutxiago dira. 4.000 - 5.000 pertsona omen dira euskarazko liburuak erosten dituztenak, hau da, euskaraz dakitenen % 0,6 - %0,75.

Argi dago, beraz, euskaldun gehienak ez direla euskal kultur produktuen kontsumitzaileak, eta euskal kulturak babes sozial txikia duela. Euskarazko komunikabideak dira euskaldunen inplikazio maila txikiena eskatzen duten adierazpide kulturalak, eta gehienez jota, 100.000 pertsona dira hauen ohiko jarraitzaileak; hau da, euskaldun guztien %15 inguru. Askoz gutxiago dira inplikazio maila handiagoa eskatzen duten adierazpide kulturaletara hurbiltzen direnak. Euskal zinera, gehienez jota, euskaldunen %10 hurbiltzen da eta euskal literatura euskaldungoaren %0,6 edo %0,7.

Nire ustez, euskal kultura indartzen ari dela esateko kopuru txikiegiak dira hauek. Are gehiago, gauden egora honetatik ateratzeko, ezinbestekoa iruditzen zait euskal kulturara jende gehiago erakartzeko estrategiak berriak martxan jartzea, baita euskal kultura berriro interpretatzeko eta haren espazioa eta garatzeko aukerak berriro definitzeko saioak egitea.

3. Bibliografia

Aierdi, Aldaz, Alkorta, Retortillo eta Zubiri (2007): *Bertsolaritza. Tradizio modernoa*. EHU-ko Argitalpen Zerbitzua, Zarautz.

Alonso Jon (2003-12-21): "Azokaz". *Argia*, 1925. alea.

Baxok, Etxegoin, Lekunberri, Martinez de Luna, Mendizabal, Ahedo, Itzaina eta Jimeno: *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*. *Eusko Ikaskuntza*, Astigarraga.

EAJ (2007): *Euskal kultura eta kultur politika*. <http://www.eaj-pnv.eu>.

- Etxeberria, Hasier (2002): *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*. Alberdania, Irun.
- Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila (2010): *Kulturaren euskal planetik kulturen aldeko herritartasun kontratura*. (www.euskadi.net)
- Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila (2003): *Hábitos de lectura y compra de libros en Euskadi 2003*. (WWW.euskadi.net).
- Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila (2005): *Hábitos de lectura y compra de libros en Euskadi 2005*. (www.euskadi.net).
- Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Behatokia (2007-2008): *Kultura Ohiturak, Praktikak, Kontsumoa inkesta* (www.euskadi.net)
- Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila (2010): *Kulturaren euskal planetik kulturen aldeko herritartasun kontratura*. (www.euskadi.net)
- Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila (2010): *Kulturen Aldeko Herritartasun Kontratua*. (www.euskadi.net).
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskal Kultur Erakundea (2005): *Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2001. Euskararen Jarraipena III*.
- Eustat: *Informazioaren gizarteari buruzko inkesta* (www.eustat.es)
- Garcia, Mikel: “Euskarazko hedabide ez publikoak. Babesa behar duen sektore estrategikoa”. *Argia* Aldizkaria, 2011ko martxoak 27, 5-9.
- Gorostitzu, Ainara (2009-01-20): “Desarrakastaz”, *Berria* Egunkaria.
- Larrarte, Joanmari (2012-6-3): “Garai zailak, neurri gogorrak: etorkizuna ziurtatzeko”. *Berria* egunkaria.
- Mendiguren Elizegi, Xabier (2011): “Xabier Mendiguren Elizegi”, *Jakin*, 2011, azaroa-abendua, 57-63.
- Siadeco (1995): “Bertsozaletasunari buruzko azterketa”, *Jakin*, 87. zenbakia.
- Sorguneak ikertegia (2011): “Euskal kulturgintza: nondik gatoz, non gaude, nora jo beharko genuke. Eztabaidarako proposamen bat”, *Jakin*, martxo-ekaina, 183-184 zenbakiak.

Torrealdai, J. M. (1997): “Euskal Liburugintza 1996”, *Jakin* 103. zenbakia

Torrealdai, J. M. (2011): “Euskal Liburugintza 2009”, *Jakin*, 182. zenbakia.

Torrealdai, J. M. (2012): “Euskal Liburugintza 2010”, *Jakin*, 188. zenbakia.

Urrutia, Andres (2011): “Andres Urrutia”, *Jakin*, 187. zenbakia, 84-90.

4. Erabilitako web orriak

Argia aldizkaria: www.argia.com

Berria Egunkaria: <http://www.berria.info/>

Bertsozale Elkarte: <http://www.bertsozale.com>

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka: <http://www.durangokoa-zoka.com/>

EITB: <http://www.eitb.com>

Euskara eta publizitatea bloga: <http://euskaraetapublizitateabloga.wordpress.com>

Eusko Jaurlaritza: <http://www.euskadi.net>

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila: <http://www.kultura.ejgv.euskadi.net>

Eusko Alderdi Jeltzalea: <http://www.eaj-pnv.eu>.

Eustat: www.eustat.es

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua: www.kontseilua.org

Sorguneak Ikertegia: <http://www.mondragon.edu>

Patxi Juaristi